

Entzuixu

Lekeitio



10.zkia ■ 2015eko Apirila



LEKEITIOK BULTZADA BAT BEHAR DU ETA HORRETARAKO TALDE SENDOA, PRESTATUA ETA LAN EGITEKO GOGOA DAUKANA AURKEZTEN DUGU

ardura, berriz ere lekittarren aurrean jartzen duguna. **Lekeitio aurrera aterako dugu.** Lekeitioren historia hurbilean arrakastaz lideratu ditugu antzerako egoerak eta berriro ere egingo dugu.

Talde berri bat, freskoa, hurbila, ilusioz betetako, heterogeneoa... Azken finean, Udal plurala osatzeko helburuarekin elkarrizketaren aldekoa dena, ahots eta iritzi guztiei leku egingo diona. **Herritar prestatuak, esperientziadunak, profil teknikokoak, enpresari txikiak, besteak beste** osatzen dute taldea. Erabakiak hartzeko beldurrik ez daukaten pertsonak, ausartak eta gauzak argi dauzkatenak. Beste garai eta etapa bat ekarriko duen taldea, Udal plurala osatzeko irekiagoa, elkarrizketaren aldekoa.

Eta zer nolako Lekeitio nahi dugu? Enpleguak sortzen dituen Lekeitio. Ekonomia produktiboa daukan Lekeitio. Munduari zabalik dagoen Lekeitio. Jasangarria den Lekeitio. Solidarioa den Lekeitio. Gaztediaren eta kulturaren aldeko apustua egiten duen Lekeitio. Bere etorkizunaren jabe den Lekeitio. **Azken finean, lekittarrak helburu dituen Lekeitio.**

Prest gaude lekittarren eta Lekeitioren alde gure esperientzia eta ezagutza erabili eta lan egiteko. **Lekeitio lekittarren erara egiteko, denon erara egiteko.**

Galdutako denbora berreskuratu beharra daukagu. Azken lau urteak lekittarrentzat geldialdiaren garaia izan da gestio, ekimen eta lan egiteko gogo faltaren ondorioz. Hori dela eta, galdutako azken 4 urte hauek berreskuratu nahi ditugu.

Lau urte galduta. Udal gobernurik gabeko lau urte. Lau urte herria zikinik, instalazio publikoak apenas mantentze lan barik, obra

publikorik barik, orain arte lortutako hobekuntzak desaginez... Lau urte lekittarren bizi kalitatea hobetzera bideratutako inolako estrategiarik barik, gure zerbitzu publikoen gestio eredurik barik, udalerrri eredurik barik.

Berreskuratzea asko kostatuko diren lau urte pasatu dira, baina guk nahi dugu, ahal dugu eta prest gaude denontzat hobeagoa

izango den etapa berri bat lideratzeko. Hazkundera eta ilusio kolektiboa oinarritzat daukan dinamika positibo batetik hasten den etapa berri bat.

Lekittarren sinesten dugulako, lehentasunak argi eta garbi ditugulako, herritarren beharrezkoak konpontzeko eta parte-hartzetik sortutako proposamenak aurrera eramateko konpromisoa hartzen

dugulako. Galdutako denbora berreskuratu beharra daukagulako. Lekeitio bere etorkizunaren jabe izan behar duelako. Lekittarrak helburu ditugulako.

Gobernu programa erreal bat, lehentasunak argi eta garbi zehazten dituen, konprometitu, herriaren beharrezkoak lotuta eta parte-hartzetik sortua.

Hau da gure konpromisoa eta

638323357

Koldo Goitia Markuerkiaga

@koldogoitia2015

2015koldogoitia@gmail.com

HAMAR PROPOSAMEN

1. Lekeitioren ekonomia berpiztuko dugu; merkataritza, turismoa eta itsasoari lotutako jarduerak bultzatuz.

2. Gizarte babeserako eta egoera txarrean dauden tresnak hobetu: Etxez etxeko zerbitzua eta zerbitzu sozialetarako harrera zerbitzuaren gunea hobetuko ditugu.

3. Hezkuntza ekipamenduak hobetzeko urtero inbertsio plan bat garatu eta gauzatu dugu.

4. Kirol ekipamenduak eta zerbitzuak hobetu: inbertsio plan bat garatu eta etorkizunari begira kirol instalazioak batzeko proiektua landuko dugu.

5. San Andres eta San Juan auzoak berritu.

6. Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitze proiektua berreskuratu, eta gazteentzako alokairuko etxebizitzak eta gazteei zuzendutako etxebizitzak alokairurako diru-laguntzak martxan ipiniko ditugu.

7. Garraio publikoa: helburua Bilbo 60 minutu baino gutxiagora.

8. Lekittarrentzat uda sasoiaren aparkalekuak ziurtatzeko sistema bat jarriko dugu martxan.

9. Lekeitioko bide berdea sortu: Santa Katalinako pasealeku berria bultzatu eta berau, Gernikarako antzinako bidea oinezkoentzat egokituz, saihesbidearekin eta bide gorriarekin lotu.

10. Udal zerbitzuen antolamendua hobetu: Udal eta herritarren arteko harremana bultzatu, erraztu eta arindu. "Lekeitio zeure erara" parte-hartze ekimena bultzatuko dugu.



KOLDO GOITIA MARKUERKIAGA
LEKEITIOKO EAJ-PNVren
ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

LEKEITIO HOBETUKO DUTEN PROIEKTUAK

Hilabete barru, Udalerako hauteskunde kanpainan murgilduta egongo gara eta badakigu horrek zer esan nahi duen, alderdi politikoak aldi berean hitzegiten eta denak hamaikatxo egitasmo lortuko dutela hitza ematen. Laburbilduz, burrundada garaia. Baina zaratak ezin digu funtsezkoak diren gauzengan arreta galduarazi.

Horregaitik Lekeitioko EAJ-PNVtik, hauteskunde-kanpaina lasai bat egiteko konpromezua hartu dugu, gure proposamena guztiz argia delako: herritarrak ilusioz betetzea, denon artean denona den herri hau hobetzea. Denok harro sentiaraziko gaituen Lekeitio abiarazi, ikasketak aurrera eramateko, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko aukera asko emango digun Lekeitio. Zerbitzu publiko eskuragarriak eskeinitu dituen Lekeitio; jendearen ongizate eta elkarkidetzaren alde jokatu

duen Lekeitio. Herri-nortasun propioa bultzatuko dugu. Bere etorkizunaren jabe izango den herria eraikiko dugu denon artean.

Hauteskunde kanpaina apala eta errespetuzkoa izango dela hitz ematen dizugu, eta hona hemen laburtuta, Lekeitioko herriarentzat dauzkagun proiektu berriak. Azken hilabeteotan hainbat auzo, merkatari, kultur eta kirol elkartekin batu gara. Eragile ezberdin hauekin izan ditugun elkarrizketak, gure programa egiteko balio izan digu, guretzat ezinbestekoak izan diren proposamenak eta eskaerak kontutan hartuz, lehentasuna duten premiei aurre egiteko, eta baita lekittarrak etorkizunari begira dituzten itxaropenak geureak eginez.

HIRIGINTZA Lekeitio atsegina

- Bide berdea: Itsasaldetik Santa Katalinako pasealekuaren proiektua berreskuratu eta "Maderas de Lekeitio" – Eluntzeta – antzinako Gernikako bidea – saihesbidea – arropain eta/edo Liako zubiarekin eratzun bat sortu bidegorriarekin batuz.
- "Maderas de Lekeitioko" lursailari irtenbidea ematea herrian integratutako eremu moduan.
- Auzoak berritzatzeko plangintza berreskuratzea: (San Andres, San Juan, ...).
- Hiri paisaia hobetu, garbitasunari garrantzia eman, piboteen ipintzea hobetu beharrezkoak ez direnak kenduz, kontainerren kokalekua aldatuz edota hauen lurperatzea burutuz kaleen ikuspegia hobetu, etab.
- 2007ko Lekeitioko Irisgarritasun Plana Eguneratu eta garatu.
- Herriko eskailera guztiak eskubandak dituztela ziurtatu eta jarri horrela ez bada.



- Gune iriskorrak edo labanak ezabatu.
- Ateta guztietara sarrera ziurtatu (leku nahikoa utzi, aparkalekua moldatu, losak egokitu, etab.).
- Losak moldatzeko edota egokitzeko plangintza bat egin. Oinezkoak kotoxeak baino lehenago.
- Gurgil aulkiekin, umeen kotoxeekin, erosketa karroekin, etab. dabilzan pertsonen mugikortasuna ziurtatu (mugikortasun urria edo baldintzatua).

GARRAIOA, BARNE MUGIKORTASUNA ETA APARKALEKUAK: Lotura hobeak

- Ibilgailu asko dabilen sasoiaren bertokoek aparkatzea ziurtatzen duen sistema diseinatu. Ordu-tegi eta gune zehatz batzuetan, uda sasoiaren lekittarrentzako aparkalekuak ziurtatu.
- Bizkaibuseko garraio publikoaren hobekuntza jarraitzea. Bilbora 60 minutu baino gutxiago.
- Larrotegi garraio publikoaren egitura berritzatzea (autobus geltokia).
- Bizikletaren erabilpena sustatzea, gure herrian dauden bizikletarako kale-bideen arteko loturak handituz eta berriak sortuz.
- Oinezkoentzako gune eta kale berriak sortzen eta espalioak zabaltzen jarraitzea.
- Lekeitioko portuko aparkalekuak



- aztertu, alde zaharrean bizi direnei irtenbidea aurkituz.
- Lekeitioko kale batzuetako trafikoa arintzeko irtenbideak aztertu.
- Trafiko geldorako guneak ezartzen jarraitzea.
- Aldirietako aparkaleku eskaintza za-

- baltzea.
- Errotazio altuko aparkalekuak bermatu botikak dauden inguruetan eta merkataritzan ordu-tegian errotazio altuko aparkalekuak bultzatu beste zonaldeetan.

EUSKARA: Gure hizkuntza ondarea zaintzea eta garatzea

- Udaleko euskara teknikariaren asteko bost laneguneko eta lanaldi osoa berreskuratu.
- Euskara bultzatzen duten eragile eta taldeekin elkarlanean aritu.
- Lekittaren artean azken urteotan eman den euskararen erabileraren beharpena saihesteko programa bereziak garatu.
- Gurasoen euskalduntzea bultzatu, familia eta etxe eremuan euskararen erabilera finkatzeko.
- Gizarte eremu zehatzetan (merkataritzan, enpresa, kultur eta aisialdi jardueretan...) euskararen erabilerak gorantz egin dezan lagundu, horretarako baliabideak eskeinitu.

KULTURA: Bizitasun kulturalaren alde lanean

- Kalitatezko kultura egitarau anitz eta zabala eskaintzea eta ezagutzera ematea.
- Sormena eta arte sorkuntza laguntzea eta sortzaileei, bereziki gazteei, beraien arte jarduerak garatzeko esparruak ahalbidetzea.
- Kultura erakarpentzako elementu gisa erabiltzea.
- Esparru publiko kultur jarduerarako gune gisa sustatzea.
- Herrian dauden gune kulturalak berrantolatu.
- Elkarte kulturalen elkarlana lortu eta hauei lagundu.
- Kanporantz proiektio handia daukaten ekitaldiak aztertu eta ondoren bultzada berri bat eman (Kale antzerkia, Zinemabilera, etab.).
- Zinemazaleak elkarrekin batera, Ikusgarri Aretoan egiteko ekintzak garatu.

KIROLA: Jarduera fisikoa eta garapen pertsonala

- Gaur egungo instalazioen mantentze eraginkorra eta horietako batzuen berritzatzea.
- Kirol instalazioen bateratze prozesuari hasiera eman (frontoia, kiroldegia eta igerilekua).
- Kirol elkarte eta klubei lankidetzan eta babesa eskaini.
- Bertako kirolak babestea, baita itsasoarekin zerikusia daukatenak ere.
- Tokiko ekonomiaren bultzatzaile diren kirol lehiaketa eta gertakariak erakartzea, antolatzea eta babestea.
- Udal Kirol Patronatuaren birplantatzea eta baita beronen gestioa ere.
- Kirol ekintzen erabiltzaileen eskariei moldatutako eskaintza egokiaz eta kalitatezko hornitzea (jokastaroak).



GAZTEDIA: etorkizunean inbertitzea

- Gazteen burujabetze edo emanzipazio plana martxan jarri, besteak beste, etxebizitzaren alokairurako laguntzen bitartez
- Lekeitioko Gaztediaren Kontseilua eratzea gazte ekimenak tratatu eta garatzeko.
- Gazteguneko (lehengo Correos) instalazio eta zerbitzuen mantentzea.
- Gazteek erabiltzen dituzten lokalen arautzea segurtasun eta osasun gutxiengo baldintzak bete dituzten.
- Gazte elkartei babesa eta elkarlana eskaini beraien ekintzak aurrera eramane dituzten.

EKONOMIA BERPIZTU: GARAPEN EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

Lekeitioko Udala eragile aktiboa izan behar da herriko garapen ekonomikoan. Derrigorrezkoa da Udala garapen ekonomikoa suspertzeko eta enplegua sortzeko aktiboki lanean aritzea. Ondorioz, eskualdeko erakundeekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin bat eginik eta eskualdean ditugun garapenerako erakundeak hobeto aprobetxatuz, enplegua eta diru sarrerak sortzeko estrategiak bultzatuko ditugu.

- Eskualdeko Garapen Agentzia sendotu eta bultzatuko dugu
- Eskualdeko ehun industrialaren garapena eta mantenua (Markina – Berriatua ardatza) berrikuntza, dibertsifikazio prozesuak eta balio erantsi altuko sektore berrietara bideratu. Besteak beste, energia berriztagarriak, biomedikuntza, material berrien garapena, teknologia berriak, etab.
- Turismoa bultzatu. Gure itsas kultura eta nortasunean oinarritutakoa. Gure itsas kultura edo itsasoarekin izan dugun eta dugun lotura baliolan jarri eta ezagutzera eman. Lea iberreko errekurtoak eta Donejakue bidea bultzatu.
- Herriko merkataritza sustatu. Hurbileko merkataritza berrikuntzaren eskutik, kontsumo ohitura berrien aurrean moldatu egin behar da.



Bere kudeaketa ahalmena gehitu, asoziazionismoa sendotu eta herriko dendetan erosketak bultzatzeko ekimenak landu.

- Itsas aktibitateak bultzatzeko mar-

txan jarriko den 47 hektareako poligonoaren alde apustu egin (ustiapena, elikadura, etab.).

- Autoenpleguaren eta enpresa txikiak sortzearen bitartez norberaren

lanpostu propioa sortu nahi duten pertsoneri babesa eskaini, salbuespen fiskalak, enplegua sortzeko diru-laguntzak, udal lokalak erabiltzeko hobariak, etab. eskainiz.

ETXEBIZITZA: etxebizitza izateko eskubidea errealitate eginez

- Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzeo proiektua berreskuratu, ahalik eta gehien alokairura bideratu.
- Gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak martxan ipini. 18 eta 35 urte bitarteko adineneko gazteentzat.
- Antzinako etxebizitzak eraberritzeko egitasmoa bultzatu.

zen alokairurako diru-laguntzak martxan ipini. 18 eta 35 urte bitarteko adineneko gazteentzat.



HERRITARREKIN HARREMANA

- Udala eta herritarren arteko harremana hobetu, tramiteak erreztu, arindu. Udala herritarrei moldatu. Benetako parte hartzea bultzatu "Lekeitio zeure erara" ekimenarekin.



GIZARTE ZERBITZUAK

- Gizarte Zerbitzuen alorrari bultzada eman, hauen beharrezana daukaten pertsonetarik ahalik eta hurbilen egoteko.
- Zerbitzuak eman ahal izateko, hauen aurrekontu partida mantendu eta baita handitu ere.
- Etxez etxeko zerbitzua hobetu.
- Gizarte Zerbitzuak emateko instalakuntzak benetako beharrezane eta erabiltzaileen konfidentzialtasunari egokitu.
- Uribarren-Abaroa Egoitzan larrialdi egoeran dauden pertsonen sarreraren protokolarizazioa.

HEZKUNTZA: Etorkizunean inbertitzea

- Legegintzaldirako inbertsio plana egin, udaletxeari dagozkion hezkuntza ekipamenduak (Haurreskola eta Herri Eskola) mantendu eta hobetu ahal izateko.
- Formakuntza zentruen arteko harremanak sendotu hezkuntza proiektuak uztartuz, denen artean lan eginez.
- R.M Azkue Ikastolarekin akordu


marko bat ezarri finantziarioa, ekipamenduen erabilera, udalekuen antolakuntza, etab. zehazteko.

- Musika Eskola bultzatu eta lagundu.
- Hezkuntza kontseilua sortu. Kontseilu honetan herriko eta eskualdeko hezkuntza zentruen parte hartuko lukete eta baita araututako zein ez araututako hezkuntza zentroak ere.



BERDINTASUNA: Eskubideak eta errealitatea eraikitzea.

- Udaletxean Berdintasun teknika-riaren lanaldia indartu egingo da astelehenetik ostiralera lanean egon dadin.
- Jabekuntza Eskola iraunkorra martxan jarri eta inplementatuko da.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin lotuta dauden ekintza, ekitaldiak, etab. herriko puntu zehatz batzuetan iragarriko eta zentralizatuko dira.



TALDE TREBATUA

Prest gehitzeko,
lan egiteko eta
Lekeitio hazi
arazteko



Koldo Goitia Markuerkiaga

Lekeitio: 46 urte.

Enpresa eta jarduera turistikoetan teknikaria, eta landa eremuaren eta itsasertzeko gune arrantzaleen garapenerako teknikari moduan egiten du lan HAZIn (Eusko Jauriaritza). Gaur egun zinegotzia da.

//

Lekeitiok eraldaketa behar du, indartu eta lau urteko lozorrotik aterako gaituen kresal freskoa. Aldaketa hori gure eskuetan dago, hemen etxean, herria aurrera eramateko prest dagoen ilusioz betetako pertsonak bagaudelako. Aurpegi berriak, bizipen berriak, interes berriak eta sentsibilitate berriak gure herria hobetu, hazi arazteko eta guztiz gozatzeko.

Eraginkortasunez eta zorrotasunez lan egiteko prest dauden herritarrak behar ditugu. Seguru nago osotu dudan taldeak baldintza horiek soberan betetzen dituela eta gure arrantzaleek esango luketen moduan "pieza ederrak" direla.

Maiatzean izango ditugun Udal Hauteskundeetarako sortu dugun lantaldeko kideek, pertsonalki zein profesionalki formakuntza eta esperientzia desberdinak daukate. Gazteak diren arren (batazbesteko adina ez da 45 urtera heltzen) zerrenda jende prestatuak biribiltzen du. Gainera erantzunkizun handiko lanpostuetan ibilbide luzea daukate gure herriaren garapenerako erabakigarriak diren hainbat arlotan: lanpostuen sortzean, landa eta itsas eremuan, gizarte ekintzan, hezkuntzan, berdintasunean, lanbide heziketan, kirolean, jarduera turistikoetan edota hizkuntza normalkuntzan. Alde batetik, perfil tekniko handia daukaten langileak dauzkagu, onuragarriak izango diren inbertsioak herrira ekarri ahal izateko edozein erakunde edota administrazioan gu ordezkatzeko ausardia daukatenak. Beste aldetik, negozio bat sortu eta aurrera eramateak nolako esfortzua suposatzen duen dakiten autonomoak eta enpresari txikiak dauzkagu baita ere.

Talde heterogeneoa gara, lau independente dauzkagu, Udalteixe plurala eta elkarriketatzaila sortzeko asmoaren adierazgarri. Ahots eta iritzi guztiek atea irekita izango dituzte Herriko Etxean.

Hemen eta orain, oinarrizkoa, herria aurrerantz bultzatzeko gogoia izatea da eta guk badaukagu. Maiatzaren 24an aurrerapausuak emateko aukera aparta dago, prestatuta dauden eta hainbat alorretan esperientzia daukaten pertsonengan konfidantza izateko, laburbilduz, gestionatzen dakiten pertsonen aldeko apostua egiteko. Egoera aldatzeko eta Lekeitio biziago bat eta berau aukera hobekoak eskeintzen dituen herria bihurtzeko ilusioak batzen gaituen taldea gara.

Danok sentitzen gara harro Lekitarrak izateagatik, nola ez! Hala ere, ilusioz, lanez, esfortzuz eta eraberritez betetako olatua behar dugu azken lau urteetan bizi dugun traba egoeratik atera ahal izateko. Bihotzak eta buruak olatu hori garela esaten didate"

KOLDO GOITIA

**EAJ-PNVKO LEKEITIOKO
ALKATETZARAKO HAUTAGAIA**



**Amaia
Antxustegi Ziarda**

**Knnoke - Heist, Flandria,
Belgika:** 36 urte.

Zuzenbide Ekonomikoan Lizentziatua eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailean teknikaria da. Aurreko legegintzaldian eta gaur egun zinegotzia da.



**Idoia Sagastizabal
Unzetabarrenetxea**

Eibar: 42 urte.

Zuzenbidean Lizentziatua da eta Enpresen Administrazioari burutu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiko enpresa sorkuntza eta garapenerako agentzian (Dema) teknikari moduan egiten du lan. Gaur egun zinegotzia da.



**Oier
Zuberogoitia Atxurra**

Lekeitio: 24 urte

Zuzenbide Ekonomikoan Lizentziatua; Bilboko bulego batean egiten du lan abokatu moduan.



**Mertxe
Arrizubieta
Basterretxea**

Lekeitio: 48 urte.

Ostalaritzako Goi Teknikaria eta Leioako Ostalaritza Eskolan irakaslea da.



**Josu Itza
Onaindia**

Lekeitio: 50 urte.

Lanbide-Heziketa ikasi zuen eta Garbiguneko langilea da. Lekeitioko Futbol Klubeko presidentea da eta bi legegintzalditan Kirol zinegotzia izan zen.



**Abel Iriondo
Retolaza**

Markina-Xemein:
50 urte.

Garbikerreko gidaria da eta Lekeitioko Futbol Klubarekin kolaboratzen du. Zesta puntako jokalaria ohia; munduko eta kontinentearteko irabazlea. 1993ko pilotari onenari garaikurra.



**Eguzkiñe
Arrasate Anakabe**

Lekeitio: 44 urte.

Lanbide Heziketa Administrazio modalitatea ikasi zuen, eta gaur egunean merkataria da Arranegi Zabalean.



**Isabel Mendiguren
Laka**

Lekeitio: 45 urte.

Filologia Ingelesean Lizentziatua, gaur egunean Lea Artibai Ikastetxeko zuzendaria da.



**Joseba Izagirre
Ikazuriagagotia**

Lekeitio: 49 urte.

Elektrikaria da eta mantentzen duen teknikari moduan egiten du lan Eusko Jaurlaritzan, txistularia.



**Mikel Anton
Zarragoitia**

Lekeitio: 49 urte.

Zuzenbidean lizentziatu zen eta europar gaietan espezializatua dago, Eusko Jaurlaritzan sail horretako zuzendaria delarik.



**Marielena Elordi
Kaltzakorta**

Lekeitio: 49 urte.

Ekonomialaria da eta Gasteizko Ekialdea institutuan bigarren hezkuntzako irakaslea da. Txistularien eta Estudiantinako taldekidea da.



**Begoña Larizgoitia
Korta**

Lekeitio: 44 urte.

Nazioarteko Zuzendaritzako Idazkaria eta Kanpo-merkatari Teknikaria.



**Maiteder
Erkiaga Laka**

Lekeitio: 45 urte.

Euskal Filologia ikasi zuen eta Eusko Jaurlaritzan normalizazio linguistikoko teknikaria da, Euskal ezkontzako antolatzailea.



**Sabin Sustaeta
Goitia**

Lekeitio: 37 urte.

Magisteritzan Diplomatu eta Psikopedagogian Lizentziatua, Erandioko Ignacio Aldekoa Haur eta Lehen Hezkuntza Ikastetxean orientatzaile moduan egiten du lan.



**Begoña Dolaraga
Leturia**

Lekeitio: 51 urte.

Magisteritzan Diplomatu, Eibarko eskola publikoan irakaslea da, Euskal ezkontzako antolatzailea.



“LEKEITIO NECESITA UN IMPULSO Y UN EQUIPO COMO EL NUESTRO QUE LO HAGA POSIBLE: SÓLIDO, PREPARADO Y CON GANAS DE TRABAJAR”

Necesitamos recuperar el tiempo perdido. Los últimos cuatro años han sido una etapa de parón para las/os Lekittarras por una nula gestión, por la escasez de iniciativas y por la ausencia de ganas de trabajar. Por ello, pretendemos recuperar estos 4 años perdidos.

Cuatro años perdidos. Cuatro años de desgobierno, de descontrol, cuatro años con el pueblo sucio, sin apenas mantenimiento en las instalaciones públicas, sin obra pública, desmantelando todo lo conseguido hasta ahora. Cuatro años sin ningún tipo de estrategia para mejorar la calidad de vida de las/os Lekittarras, sin un modelo de

gestión de nuestros servicios públicos, sin modelo de municipio.

Cuatro años que costará mucho recuperar, y que nosotras/os queremos, podemos y estamos dispuestas/os a liderar una nueva etapa para el municipio. Una nueva etapa que parta de una dinámica positiva de crecimiento e ilusión colectiva.

Creemos en la fuerza de las/os Lekittarras y tenemos muy claras las prioridades: asumimos el compromiso de solucionar las necesidades de nuestras/os vecinas/os y cumplir las propuestas que nos han presentado. Porque tenemos que recuperar el tiempo para que las/os lekittarras nos hagamos con el timón de nuestro futuro.

Presentamos un programa de gobierno realista, con prioridades claras, comprometido, pegado a las necesidades del pueblo y construido desde la participación. Éste es nuestro compromiso y responsabilidad que volvemos a proponer ante las/os Lekittarras. Vamos a sacar Lekeitio adelante. Ya hemos liderado con éxito situaciones similares en la historia reciente de Lekeitio y lo volveremos a hacer. Con el compromiso de dar un paso adelante, un nuevo período para las/os Lekeittarras, para que podamos hacer de Lekeitio un mejor lugar para vivir, trabajar y disfrutar.

Un equipo nuevo, cercano, lleno de ilusión, variado, que formará un Ayuntamiento

plural y dialogante en el que tendrán cabida todas las voces y opiniones. Personas preparadas, con experiencia, con perfil técnico, personas emprendedoras, personas valientes que no temen tomar decisiones y tienen las cosas claras. Es un equipo que traerá un tiempo nuevo a Lekeitio porque pondremos todos nuestros conocimientos y experiencia al servicio del pueblo.

Un Lekeitio con el empleo. Un Lekeitio con la economía productiva. Un Lekeitio abierto al mundo. Un Lekeitio sostenible. Un Lekeitio solidario. Un Lekeitio que apuesta por la cultura y la juventud. Un Lekeitio dueño de su propio futuro, un Lekeitio, en definitiva, centrado en las/os Lekittarras.

jarrai
gaitzazu!!!
entzuixu@gmail.com

YOUTUBE



FLICKR



TWITTER



FACEBOOK



PROYECTOS QUE REACTIVARÁN LEKEITIO

“Dentro de nada estaremos inmersos en una nueva campaña y ya sabéis cómo son las cosas. Todas/os hablando a la vez y prometiendo mil cosas. Ruido, ruido y más ruido que no queremos que nos distraiga de lo realmente importante. Por eso, desde EAJ-PNV de Lekeitio nos hemos prometido hacer una campaña tranquila, sin palabras altisonantes, porque, en el fondo, nuestra propuesta es bien sencilla; queremos ilusionaros para, entre todas/os, conseguir un Lekeitio mejor. Un Lekeitio, del que

enorgullecernos porque nos ofrecerá oportunidades de estudiar, trabajar y disfrutar; porque contará con unos servicios públicos cuidados y accesibles; porque apostará por el bienestar y la solidaridad; porque se renovará sin perder su esencia. En definitiva, queremos construir entre todas/os un Lekeitio dueño de su futuro.

Te hemos prometido una campaña sencilla, y aquí está; todo lo que queremos para nuestro pueblo resumido. Durante los últimos meses nos hemos reunido

con asociaciones vecinales, de comerciantes, culturales, deportivas, etc. Esas conversaciones nos han servido para hilar el programa con el que vamos a revitalizar un Lekeitio que responda a las necesidades inmediatas, pero también a las expectativas de futuro de quienes vivimos aquí”.

KOLDO GOITIA MARKUERKIAGA
CANDIDATO DE EAJ-PNV A LA ALCALDÍA DE LEKEITIO

1/ REVITALIZAREMOS LA ECONOMÍA. IMPULSAREMOS LA ACTIVIDAD LIGADA AL MAR, EL TURISMO Y EL COMERCIO

La actual situación de crisis económica tiene como principal y preocupante consecuencia el paro. Por ello, es clave la intervención en materia de reactivación económica, y empleo y esto requiere tomárselo en serio. Ya no es suficiente que el Ayuntamiento adopte el papel de facilitador. Consideramos fundamental el papel proactivo que el Ayuntamiento de Lekeitio debe de tener a la hora de favorecer el desarrollo económico y la creación de empleo. Para ello, impulsaremos el desarrollo de nuevas actividades económicas o nuevos yacimientos de empleo que pudieran surgir vinculadas a la mar, teniendo en cuenta la futura instalación de un polígono para actividades marinas, 47 has., impulsar Lekeitio como destino turístico de referencia vinculado a nuestra identidad y cultura del mar, y apoyaremos al pequeño comercio del municipio.

2/ MEJORAREMOS LOS NIVELES DE PROTECCIÓN SOCIAL Y AYUDA A LAS PERSONAS MÁS DESFAVORECIDAS: MEJORAREMOS EL SERVICIO A DOMICILIO Y EL SERVICIO DE ATENCIÓN A USUARIAS/OS

Reiteramos que son LAS PERSONAS el eje fundamental de nuestras políticas para construir una sociedad más justa y solidaria, SON NUESTRO ACTIVO MÁS IMPORTANTE. No dejaremos a nadie de lado. Los servicios sociales son prioridad. Debemos adecuar el servicio a domicilio a las necesidades actuales. Las instalaciones municipales deben ser reorganizadas, para garantizar la confidencialidad de las personas que las utilizan.

3/ VAMOS A EJECUTAR UN PLAN DE INVERSIÓN ANUAL PARA MEJORAR LOS CENTROS EDUCATIVOS

La educación es vital en una sociedad preparada, competitiva, justa y solidaria. Es necesario hacer inversiones en las escuelas públicas y en la haurreskola y nos comprometemos a elaborar y a poner en marcha en los próximos 4 años un plan de inversiones para llevar a cabo esas mejoras. La Ikastola y la Escuela de Música recibirán también nuestra colaboración y apoyo.

4/ REALIZAREMOS MEJORAS EN LOS EQUIPAMIENTOS Y SERVICIOS DEPORTIVOS. PROYECTAR, CARA AL FUTURO, LA UNIFICACIÓN DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS

Debemos mejorar la situación de los equipamientos deportivos. Es preciso invertir en su puesta al día: polideportivo, Isuntza, campo de fútbol, piscina... De cara al futuro, queremos trabajar en un proyecto para unificar todas las instalaciones.



5/ REHABILITAREMOS LOS BARRIOS DE SAN ANDRÉS Y SAN JUAN

Dos barrios a rehabilitar integralmente.

6/ RECUPERAMOS EL PROYECTO DE VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL PRIORIZANDO EL ALQUILER DIRIGIDO A JÓVENES. PUESTA EN MARCHA DE AYUDAS PÚBLICAS AL ALQUILER PARA JÓVENES

Retomaremos el convenio con el Gobierno Vasco para la construcción de Viviendas de Protección Oficial, principalmente dirigidas a los jóvenes y en alquiler. También ayudas para el alquiler de vivienda para jóvenes de entre 18 y 35 años para apoyarles en su proceso de emancipación.

7/ TRANSPORTE PÚBLICO: BILBAO A MENOS DE 60 MINUTOS

Debemos de abordar de una forma integral la mejora de las conexiones del municipio con el exterior. Bilbao no puede estar a más de una hora. Nuestro objetivo Bilbao en menos de 60 minutos en transporte público.

8/ GARANTIZAREMOS APARCAMIENTOS A LAS/OS LEKEITIARRAS EN TEMPORADA DE VERANO

Diseñaremos un sistema para facilitar el aparcamiento de residentes en momentos de gran afluencia de vehículos instalando en algunas calles del centro zonas de aparcamiento restringido de 15:00 a 20:00 horas en período estival.

9/ CREAREMOS EL ANILLO VERDE DE LEKEITIO: RECUPERAREMOS EL PROYECTO DEL PASEO DE SANTA KATALINA CONECTÁNDOLO CON LA CARRETERA ANTIGUA DE GERNIKA, LA CIRCUNVALACIÓN Y EL "BIDEGORRI"

Recuperaremos el proyecto del paseo de Santa Catalina, acondicionando para peatones la antigua carretera de Gernika y conectándola con la variante y el bidgorri.

10/ MEJORAREMOS LOS SERVICIOS DEL AYUNTAMIENTO. IMPULSAREMOS LA INICIATIVA "LEKEITIO ZEURE ERARA"

Mejoraremos la relación de la ciudadanía con su Ayuntamiento, facilitaremos y agilizaremos los trámites. El Ayuntamiento debe estar al servicio de la ciudadanía. Impulsaremos una verdadera participación ciudadana a través de la iniciativa "Lekeitio zeure erara".

LEKEITIOKO BATZOKIA – ABERRI EGUNA 2015

Lehenengo Aberri Eguna Bilbon ospatu zen 1932. urtean. Euskal Nortasunaren eguna eta Euskadiren eskubideak errebindikatzeko burutu zen. Ordutik aurrera, urtez urte, euskal abertzaleok egutegian mantentzen dugu aldarrikapen egun hori. Askatasun denboretan egin genuen, gerra garaian, jazarriak izan ginenean eta nola ez, demokrazia bueltaratu zenean. Urte bakoitzak izan du bere nabardura, bere proposamen zehatza, unean uneko beharraren edo egutegi politiko, ekonomiko edo sozialaren arabera.

Euskadiren unea da. Politikaren unea da, eta euskaldun guztiok, Euskadirekin zer egin nahi dugun eta gure seme-alabentzat nahi dugun gizartea guk erabakitzeko daukagun eskubidea eskatzeko eta exijitzeko unea ere izango da.

Gure histori luzeak erakusten digu Aberri eraikuntza ez dela egun eta leku zehatz batean egiten den zerbait. Aberria egunez egun eraikitzen da, urtez urte. "Herriz Herri, Aberri", aurtengo Aberri Eguna ospatzeko aukeratu dugun goiburuak adierazten duen legez.

Aurten ere jai giroan ospatu genuen Aberri Eguna Lekeitioko Batzokian. Bertan, egunez egun Aberriaren eta Alderdiaren alde egindako lana eskertzeko asmoarekin, Elena Kaltzakorta eta Teodora Goitiz Alderdikideak omendu genituen, Abertzaleon ikur gorena den Ikurriña igotzeaz arduratu zirelarik. Lekeitioko EAJ-PNVtik gure eskerrik eta besarkadarik beroenak urteetan zehar egindako lanagatik!



ABERRIA GARA!

Apirilaren 5ean, Aberri eguna ospatu genuen. Bizkaiatik eta Gipuzkoatik, Lapurdiraino, Nafarra Beheraino eta Zuberoaraino, Araba eta Nafarra Garaitik pasatuz. Milaka gizon eta emakumeok Ikurriñak igo genituen gure, Herriaren ikurra dena, Euskadiren sinboloa. Honela, Euskal Aberria existitzen dela ospatzen dugu.

Euskaldunok gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea daukan Herri bat osatzen dugu -Europako zaharrenetarikoa dena- eta, beraz, galdetuak izateko eskubidearekin eta herriak demokratikoki adierazten duen borondatea onartua izan dadin.

Izan ere, edozein printzipio demokratikok behartzen du gizartearen gehieneko borondatea garrantziko balore arauemaienez hornitzea. Honek aipatutako borondatearen

adierazpenari erantzuna emango dioten ezinbesteko akordioak (baita konstituzionalak ere) negoziatzea ekarriko luke. Hau da Quebeceko edota Eskoziako ereduak eta izan daiteke Euskadiko edota Catalunyaeko ereduak ere.

Bizikidetzaren ezin da inposatu, alde biek onartu behar dute, bai arlo pertsonalean eta baita arlo politikoan ere. Kontrara, ez da bizikidetzaren inposaketa edo sumisioa baizik.

Euskal auzia jatorri politikoa duen arazo historiko bat dela eztabaida ezina da eta honen konponbidea oinarri demokratikoak dituzten proiektuak defendagarriak izateaz gain, egingarriak ere badirela partekatzean oinarritzen da.

Zoritxarrez Espainiako gobernuak - PP eta PSOE - Euskadiko edo Catalunyaeko gaia ekiten saiatu denean, beti debekua,

ukapenaren edota inposaketaren bidea hartu du eta ondorioa da, nahiz eta urteak pasatutakoan nabaritu, arazoak konpondu ordez enkistatu eta gatazka politiko bihurtzen direla.

Aurretiazko porrotek, behingoz, Estatuari bere lurralde modeloaren hausnarketa bat egitera eraman beharko lioke. Orain Catalunyaekin eta Euskadirekin zuzenean tratatzeko aukera dauka, elkar ulertzeko eta oreka berri batean edo errespetutik habiatutako berdinen arteko estatus berri baten inguruan hitz egiteko. Izan ere, Demokrazia batean arazo politiko guztien irtenbidea elkarriketan eta negoziazioan oinarritzen da, baita indar politikoen arteko akordio zabaletan ere eta honen faltan, gizartearen gehieneko nahien errespetuan.

Eta munduko aberrien artean egoteko eskubidea errebindikatzeko

dugun modura, gure sentimenduak eta pentsaerak gure aberri hizkuntzan, euskaraz, Europako hizkuntza zaharrenean, adierazteko eskubidea aldarrikatzen dugu. Euskararen inguruan gure identitate sentimendua finkatzen da, nortasun propioa, euskalduna, herri bezala elkartzeko gaituena eta besteekiko bereizteko gaituena. Euskadirengan dugun konpromisoa euskarari ere luzatzen diogu, euskara zaindu eta bere erabilera bizitzako arlo ezberdinetara hedatuz.

Bi elementu horiekin batera, aurtengo Aberri Egunean, gure Herriaren etorkizuneko bizikidetzaren baketsua eta normalizatu bermatzeko oinarri sendoak jartzearen beharra ere aldarrikatzen dugu.

Hamarkadetako indarkeriaren ondoren ordua da argi izateko edozein ideia edo

proiektu politiko, ezta horren defentsa, edozein injustiziaren salaketa edota Estatu arrazoia ere, ez dela giza duintasunaren balorearen arinagokoa edota beronen gaitetik dagoena. Giza eskubideak, horien artean lehena den bizitzarako eskubidea, gauza guztien gaitetik dago eta beraz, indarkeriaren erabilera eta honen justifikazioa ezin dira inondik inora ere ez onartu.

Eta nola ez, justizia sozialean oinarritutako Euskadi bat eraiki nahi dugu, ahulenekin eta egoera txarrean daudenekin solidaritatean.

Hau da guk bultzatu nahi dugun aberri-eraikuntza, emakume eta gizon askeak osaturiko Euskadi aske bat.

Gora Euskadi askatuta!